



**Docentiaz**

# **DOCENTIAZ**

**IRAKASLANA**

**EBALUATZEKO PROGRAMA**

**Ikastegietako Kalitate Batzordeek  
DOCENTIAZ programari buruz egindako iritzi  
inkestan oinarritutako txostena**

**2022eko azaroa**





## SARRERA

DOCENTIAZ programa, gaur egun ANECA eta UNIBASQ kalitate-agentziek ziurtatua, UPV/EHUko irakasleen irakaslana ebaluatzeko programa bat da.

DOCENTIAZ programa borondatezkoa da, eta irakaslana ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaslanari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakaslanaren zenbait alderdiri buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako azken txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren hamabigarren deialdia 2022eko otsailean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutaraziz, eta, 2022ko urrian amaitu zen.

Ikastegiko Kalitate Batzordeak (hemendik aurrera IKB) DOCENTIAZ programan parte hartzen duten bere ikastegiko irakasle bakoitzaren txosten labur bat egin behar du. Txosten hori telematikoki bete zen 2022ko martxoaren 23tik apirilaren 5era bitartean.

IKBk egindako txostenean, ikastegiko irakasleen lanaren honako alderdi hauei buruzko informazioa emateko eskatzen zaie:

- I. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren plangintza eta garapena: irakasleak aurkeztutako ikaslearen gidan deskribatutako gaitasunak titulaziokoekin eta irakasgairako zehaztutakoekin bat datozen eta ikasketa planeko irakaskuntza modalitateen aurreikuspenari erantzuten dioten egiaztatu behar da.
- II. Emaitzak: irakasleak hautatutako irakasgaiaren arrakasta tasak aurkezten dira, baita *Irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkesta* ere, Kalitate Batzordeak datu horiek dagokien testuinguruan koka ditzan.
- III. Irakaskuntzaren koordinazioa: eskatzen da erantzutea ea ondo egin den, eta eragin positiboa izan duen arrakasta tasetan eta ikasleek duten irakasgaiari buruzko iritzian.

Jarraian, IKBetako kideei egindako galdetegi batetik lortutako emaitzak ageri dira. Galdetegia bide telematikotik erantzun zen. Galdetegia bidali zitzaian IKBetako 260 kidedatik 63k erantzun zuten; hau da, % 24k gutxi gorabehera.

Galdetegiak DOCENTIAZ programaren edukiari buruzko 13 item ditu. Horietatik 9 galdera egituratu itxiak dira, eta 5 balioko eskala eskaintzen dute gaiaren enuntziatuaren araberako maila adierazteko; 1 galdera egituratu itxia da, 7 batez besteko eskaintzen dituen espediente bakoitzaren berri emateko lanean emandako denbora kuantifikatzeko; eta 3 galdera ireki dira.

## INFORMAZIOAREN AZTERKETA

Jarraian, deialdi honetan parte hartzen duten irakasleak dituzten Ikastegietako Kalitate Batzordeetako kideei zuzendutako galdetegiaren bidez jasotako erantzunen emaitzak laburbiltzen dira. Erantsitako informazioan – Lortutako erantzunak – Item bakoitzean lortutako ehuneko balioak kontsulta daitezke, balorazio eskalaren balioen arabera, bai eta item irekietan lortutako erantzun guztien laburpena ere, gaikako arloen arabera multzokatuta.

IKBk bete beharreko **lehenengo atalari** dagokionez, **“Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren Plangintza eta Garapena”**, % 85 nahiko edo erabat ados daude Batzordeak egiaztatu egin behar duela irakasleek aurkezturiko Ikasleen Gida ote datorren bat tituluan ezarritako ildoarekin, eskatutako gaiaren gaitasunekin, eta ikasketa planen irakasteko modalitateei erantzuna ematen dien. % 10 ez daude oso edo batere ados IKBk atal honetan iritzia ematearekin. Bestalde, % 77k uste du atala erraz betetzekoa dela.

**“Emaitzak” bigarren atalari** dagokionez:

- % 56k uste dute IKBk aztertu egin behar dituela irakasleen arrakasta tasak eta taldeko/mailako batez-bestekoaren artean egon litezkeen aldeak; % 21 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta % 23 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. % 73ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.
- % 56ren ustez, IKB-k aztertu egin behar ditu ikasleen iritzi-inkesten emaitzetan, irakasleen eta irakasgaiaren, Titulazioaren eta Sailaren txostenaren artean egon daitezkeen desadostasunak. % 19 ez daude oso edo batere ados hori horrela izatearekin, eta % 24 ez da ez aukera baten ez bestearen alde agertzen. Bestalde, % 66ren ustez, erraz bete daiteke atal hori.

**Hirugarren atalari** dagokionez, **“Irakasleen garapen profesionala”**, IKBk betetzen duen azken atala, % 62k uste du egokia dela IKBk atala betetzea, eta beste % 21ek berriz, uste du ez duela zertan bete. Gainerako % 16 zalantzan daude. Bestalde, % 48rentzat erraza da atal hori betetzea.

Azkenik, % 86k Ebaluazio Zerbitzuak eskainitako arreta egokia izan dela uste du.

Emaitzei erreparatuta, hau ondoriozta daiteke: % 65 inguruk uste dute egokiak direla IKBak bere txostenean bete beharreko atalak, eta, % 66ren ustez erraz bete daiteke atala. Txosten bakoitza egiteko erabilitako denborari dagokionez, erantzun nagusia 30-45 minutukoa izan zen.




## **Eranskina: Jasotako erantzunak**




## Docentiaz Programaren dimentsio bakoitzari dagozkion ehuneko grafikoak


### 1. Dimentsioa




### 2. Dimentsioa




### 3. Dimentsioa



### 9. Itema Adierazi txosten bakoitza egiteko erabilitako batez besteko denbora:



### 11. Itema Ebaluazio Zerbitzuko langileek behar bezala erantzun diete egindako galderei.







## **Erantzun irekia duten itemen emaitzak, erantzunak gaikako edukien arabera bilduta**

### **10. itema.- Adierazi txostena egiteko zeregina zaildu duen alderdi bat. \*(33).**

**\*31 pertsonak erantzun dute, baina horietakoren batek adierazitakoen alderdi bati baino gehiagori buruzko iritzia eman du; beraz, guztira 33 erantzun jaso dira.**

1. Docentiaz aplikazioa: (5)
  - o Zailtasun nagusia plataforma bera da, motelegia baita. Adibidez, ebaluatu beharreko pertsonen kopurua handia bada, eta zerrenda hainbat orritan badago, orri batetik hurrengora igarotzeko denbora dezente behar da. Gauza bera gertatzen da zerbait grabatzen saiatzen garen bakoitzean. Gainera, parte-hartzaile bakoitzarentzako dokumentazioa deskargatzea ere lan aspergarria da, denbora dezente behar da horretan, eta akatsak ematen ditu. Akats horiek Ebaluazio Zerbitzuari jakinarazi behar zaizkio, ebazteko. Logikoagoa izango litzateke pertsona bakoitzeko zip fitxategi bat sortzea, Kalitate Batzordeak deskargatu beharreko dokumentazioarekin, hura osatzen duten fitxategi bakoitza banan-banan deskargatu beharrean. Era berean, txostenaren pdf-a sortzeko behar den denbora handia da, batez ere "laneko" ohiko orduetan, txostenak bidaltzeko epea hurbiltzen denean. (5)
2. Informazioa kontsultatzea (1)
  - o Irakaskuntza-giden eskuragarritasuna (1)
3. Irakasleen koordinazioari dagozkion itemak baloratzeko zailtasuna, informaziorik eta/edo ebidentziarik ez dagoelako. (8)
4. Ikastegi atxikitzea ez dator bat irakasgaia ematearekin (4)
  - o Ebaluatu beharreko irakasleak ikastegiari atxikita egotea, baina ebaluatu beharreko irakasgaia beste ikastegi batekoa izatea. Zerbitzuaren jarraibideei jarraituz, ikasgaia ematen den ikastegiari informazioa eskatu zaio, baina ez da erantzunik eman. (2)
  - o Txostenaren ebaluatzaileak, irakasle horrek irakaskuntza duen ikastegiak izan beharko lirateke. Batzuetan irakasleak ikastegi batera atxikiak daude, baina ez dute bertan irakaskuntzarik ematen, beraz Kalitate Batzorde horrek ezingo lioke ebaluatu era egokian. (2)
5. Balorazioa orientatzeko alde zehaztutako irizpiderik ez izatea. (4)
  - o Ebaluazio txostenak egiterakoan kategoria batzuk oso zailak suertatu dira ez ditugulako errubrika zehatzik izan. (4)

6. Iruzkina orokorrak eta iritziak. (6)
  - o Jakintza-arloan ebaluatu beharreko txostenen kopuru handia.
  - o Gaitasunen definizio desberdina titulazioaren memorian eta gidetan.
  - o Irakaslea ez ezagutzea, ezta bere lan egiteko modua eta ikaskideekin koordinatzea ere.
  - o Lehen aldia izatea.
  - o Ez jarri harremanetan Ebaluazio Zerbitzuarekin, baizik eta ikasketa-planen zuzendariordearekin.
  - o Inkesta beraren izaera (eta kontuan hartu behar dira inkesta betetzean sor daitezkeen kanpoko baldintzak ere). Aurreko elementu kualitatiboekin batera, emaitzak kontuan hartzerakoan, kasu batzuetan aplikazioak ez du datu konparatiborik ematen.
7. Ez da egokia Ikastegietako Kalitate Batzordeek Docentiaz Programan adierazitako alderdiei buruzko informazioa ematea.. (4)
8. Batzordeen ebaluazioaren egokitasuna. (1)

**12. itema.- Ikastegietako Kalitate Batzordeek egindako txostenaren edukia eguneratzea aurreikusiz, zure ustez, zer alderdiri buruzkoa izan beharko litzateke txostena? (15)**

1. Utzi bakarrik 1. dimentsioa (1)
  - o Txostenak, funtsean, irakasgaiaren irakaskuntza-gida betetzen duen aztertu beharko luke, graduko ikasketa-planarekin bat etorriz, Sailaren txostenarekin batera. Txostenean ebaluatu beharreko gainerako alderdiak DOCENTIAZeko ebaluazio-arduradunen eskumena izan behar dira.
2. 2. dimentsioa kentzea (3)
  - o Ez zait egokia iruditzen lankideak izatea lankideen inkesten emaitzak ikusi behar dituztenak. Inkesta horiek 3.a edo 3.5a gainditzen badute, beren kabuz egokitzea jo beharko lirateke, eta ez zaie lankideei eskatu behar inkesta horiek berrikusteko.
  - o Bat nator Kalitate Batzordeak irakasleak aurkezten dituen gaitasunen eta irakasgaiarekiko espero denaren arteko lerrokadura egiaztatzearekin.
  - o Arrakasta-tasak, aldiz, sistematikoki baloratu daitezke, irizpide argiago eta hobeto ezarritakoekin.
  - o Ikasleen inkestei ematen zaien garrantzia gehiegizkoa da, inkesta horiek nola lortzen diren kontuan hartuta.



3. 3. dimentsioa: Irakasleen koordinazioa: dimentsio hori berrikusi egin beharko litzatekeela adierazten duten erantzunak dira. Jarraian, adierazitako argudioak laburbiltzen dira (3):
  - o Tresna gehiago jarri beharko lirateke, koordinazioa egokia izan ote den galderari erantzun ahal izateko. Ez daukagu datu hori; kexarik egon ez bada, koordinazioa egokia izan dela ulertzen da; baina ez da erantzun ez positiboan ez negatiboan. Atal hori gehiago zehaztu beharko litzateke, neur daitekeen beste parametroren batekin. Koordinazioak, gainera, oso lotuta egon behar du irakasgaiaren edukiekin, eta alderdi hori kontuan hartu beharko litzateke ikasturteko batzordeetan, irakaskuntz gidan agertzen diren edukiei ematen zaien pisu espezifiko ezagutzeko. Hau da, edukiak gidan egon daitezke, baina ez da beti agertzen eduki bakoitzari aplikatutako ehunekoa, ikasgaia lortzeko helburuek duten garrantzia jakiteko.
  - o 3. dimentsioa ezabatzea.
  - o Xehetasun gehiago, "Irakasleen koordinazio"ari buruzko informazioa eman ahal izateko (adierazleren bat edo beste).
  
4. Alderdi objektiboen balorazioa soilik (3)
  - o Kalitate Batzordeak erantzun ahal izateko datu egiaztatuak dituen alderdi objektiboei buruzkoa izan beharko luke. Ez du logikarik irakasle-koordinazioak arrakasta-tasetan eta ikasgaiko ikasleen iritzietan eragin positiboa duen galdetzea; izan ere, horretarako, azterketa bat egin beharko litzateke, ikasgai horretako ikasleen tasei eta iritzitari talde koordinatu batean eta beste batean begiratu litzatekeena. Era berean, EHUko irakasleen ebaluazioan uniformetasuna egon dadin, Ikastegia edozein dela ere, zehaztu beharko litzateke zer diren "alde nabarmenak" arrakastan edo iritzi-inkestaren konparazioei dagokienez; izan ere, Ikastegi batean, Kalitate Batzordeak uler dezake alde nabarmena dela 0.5eko bat, eta beste Ikastegia batean 0.1eko bat.
  
5. Txostenaren egungo edukia egokitzen jotzen dute. (3)
  
6. Ez dute egokitzen jotzen Kalitate Batzordeak txostena egitea. (2)
  - o Benetan kalitatea adierazten duten alderdiren bat kontutan hartu beharko litzateke.. Irakasle baten kalitatea ez da soilik neurtzen formazio kurtsoak egiten dituen ala ez kontrolatuz, edo ikasleek gaitasunak duten ala ez begiratu. Eskolak nola ematen diren, irakasgaia menderatzen den, irakasgaia eguneratzen den edota ikasleekin eskoletan duen jarrera kontuan hartu beharko litzateke, beste hainbat gauzen artean.
  - o Irakasleek maila pertsonalean eta indibidualean egiten duten eskaerei buruzko txosten mota hori ez luke inoiz Ikastegiko Kalitate Batzordeak gainbegiratu edo epaitu behar.

### **13. itema.- Adierazi nabarmendu nahi nukeen beste gairen bat. (11)**

1. Ebaluazio-denbora pixka bat luzeagoa izan beharko litzateke, eta horrek ebaluazioa lasaiago egiteko aukera emango luke. (2)
2. Askotariko Ikasleen Gidak aurkezten dira formatuari eta edukiari dagokienez, eta, beraz, zaila da irizpide komun guztiak aplikatzea.. (1)
3. Zalantzakoa da Docentiaz ebaluazioak inola ere ezin ote duen irakaslearen jardunaren balioa ebaluatu. Gainbaloratu egiten da irakaskuntza berrikuntzan argitaratzen bada edo prestakuntza-ikastaroak ematen badira. Irakasleen gutxiengo batek bakarrik bete ahal izango du atal hori. Ez da bidezkoa zati horri hainbesteko balioa ematea. Kanpotik begiratuta, badirudi irakasle-talde batek diseinatutako ebaluazio-sistema bat dela, gai pedagogikoetara bideratua. Bestalde, koordinazioak, graduetan zein ikastaroetan, ez dira kontuan hartzen, horrek dakarren lanarekin alderatuz gero. Unibertsitateak bultzatutako funtzioak dira, baina gero ez dira balioan jartzen. Hau kontraesana da. (1)
4. Ebaluazio desegokia edozein ebaluazio baino okerragoa izan daiteke. (1)
5. Prozedura eraginkor bat ezartzea ebaluatu beharreko irakasleak Ikastegi batera atxikita dauden kasuetarako, baina ebaluatu beharreko irakasgaia beste Ikastegi batekoa bada. Ebaluazio Zerbitzuak rol aktiboagoa izatea komeni da, bi Zentroetako Kalitate Batzordeen konpromisoak argi egon daitezen eta bete daitezen. (2)
6. Alde batera utzi beharko litzateke zeregin burokratikoak unibertsitateko irakasleei (bereziki, titulazioen koordinatzaileei) esleitzeko politika, Unibertsitateko zuzendaritza-organoek zeregin horiek nork egin behar dituen argi ez dutenean. Zeregin horiek, gehienetan, ez dute batere laguntzen ikasleei eskaintzen zaien prestakuntzaren kalitatean eta mailan. (1)
7. Galdera gehienetan dokumentuak alderatzeko lan administratibo hutsa da. (1)
8. Ezer aipatzekorik ez. (2)